

ULMA FORJA kooperatiba bat da, eta mundu mailan hornitzen ditu Piping soluzioak energia-sektorerako, baita osagai forjatuak ere merkatu-sektore ezberdinetarako, besteak beste energia-eta aeronautika-sektoreetarako, eta segurtasun nuklearrerako garrantzitsuak izan daitezkeen aplikazioetarako (ITNS).

Gure bezeroak asetzeko konpromisoa hartzen dugu, kalitatezko eta seguruak diren produktu eta zerbitzuen eskaintzaren bidez, aplikatu beharreko legezko eta arauzko eskakizunak betetzen direla ziurtatuz, kostua modu globalean optimizatuz eta segurtasun nuklearra bermatuz.

Bezeroen **informazio konfidentziala** babesteko konpromisoa hartzen dugu, haren babes osoa eta adostutako helburuetarako erabilera eskusiboa bermatuz. Erabateko inpartzialtasunez jardun behar da, gure erabaki eta ekintzak irizpide objektiboetan soilik oinarritzen direla bermatuz.

Gure **IKUSPEGIA** da energia-sektorerako Piping soluzioetan munduko lider nagusien artean egotea eta osagai forjatuen hornikuntzan merkatuan erreferente izatea, kalitatearekiko, ingurumenarekiko, segurtasun nuklearrarekiko eta laneko segurtasun eta osasunarekiko konpromiso sendoa hartuta.

ULMAk, bezeroei eskaintzen dien zerbitzuak kalitate-berme egokiak dituela ziurtatzeko beharrezko jakitun, kalitatea kudeatzeko esparru bat ezartzen du, laborategiko saiakuntza-jardueretan gaitasun teknikoa eta emaitzen zehaztasuna bermatzeko, UNE EN ISO/IEC 17025:2017 arauaren eskakizunak betez.

Helburu hori lortzeko, ULMA FORJAK bere Kudeaketa Sistemaren baitan Kalitate, Ingurumen, Laneko Segurtasun eta Osasun eta Segurtasun Nuklearreko Politika Integratua bere gain hartzen du, eta honako **BALIO** hauek bereganatzen ditu:

ELKAR ZAINZA

ZAINDU ZEURE BURUA, BESTEAK ZAINDUZ.

TALDE-LANA

PERTSONAK BAKARRIK LAN EGINEZ AZKARRAGO JOAN DAITEZKE, BAINA ELKARREKIN LAN EGINEZ URRUNAGO IRISTEN DIRA.

KONPROMEZUA

KONPROMEZUA DA PROMESA BAT ERREALITATE BIHURTZEN DUENA.

FIDAGARRITASUNA

ESATEN DUDANA EGITEN DUT, ETA EGITEN DUDANA ESATEN DUT.

BEZEROAREKIKO ORIENTAZIOA

ZURE BEZEROA ZAINTZEN EZ BADUZU, ZURE LEHIAKIDEAK EGINGO DU.

ETENGABEKO HOBEKUNTZA

INOIZ EZ GELDITU, INOIZ EZ KONFORMATU, ONA HOBE BIHURTU HARTE, ETA HOBEA BIKAIN BIHURTU ARTE.

Azken batean, gure bezeroen gogobetetasuna lortzea, baliabide naturalen erabilera arrazoizkoa eta kutsaduraren prebentzioa sustatzea, eta ULMA FORJAKo langileen segurtasuna eta osasuna modu aktiboan babestea ahalbidetuko duen kultura bultzatzea da helburua.

Hau guztiagatik, ULMA FORJAKo Zuzendaritzak kalitatearen kudeaketa, segurtasun nuklearra, ingurumenaren babesa eta laneko segurtasun eta osasunaren kudeaketa sustatzeko konpromisoa hartzen du, horretarako beharrezkoak diren langileak eta baliabideak esleituz, bai eta politika honen zabalkundea eta aldizkako berrikuspena bultzatuz ere, erakunde osoan ulertua eta ezaguna izan dadin.

Hori bermatzeko, Zuzendaritzak kudeaketa, koordinazio, zaintza eta informazio-eginkizunak Kalitate, Ingurumen, Laneko Segurtasun, Laborategi eta Segurtasun Nuklearreko zuzendariaren esku uzten ditu.

Meritxell Sanchez
CEO



Oñatin, 2026eko martxoa